

da aplikatzekoa 92. atalaren 1. idazatia, eta laguntza salbuetsita geratzen da bera eman aurretik Batzordeari jakinarazi beharretik, 93. atalaren 1. idazatiaren ondorioz. Gerora egiaztatu da arauak ez duela eraginik elkarlehia eta Estatu kideen arteko merkataritza-trukeak funtsean faltsutzeko arriskurik ekartzen ez duten laguntza batzuetan.

Horrengatik, minimis laguntzen gehienezko zenbateko osoa eguneratu egin da eta 100.000 ecutan finkatu da, minimis lehenengo laguntza eman eta hiru urteko eperako (Elkarte Europearren Egunkari Ofizialaren 1996ko martxoaren 6ko alea).

Laguntzen mugak betetzen direla bermatzeko, ez zaio minimis laguntzarik emango enpresa bati, baldin eta laguntza horren ondorioz delako enpresa horrek hiru urteko epean jasotzen dituen minimis laguntza guztien zenbateko osoa 100.000 ecutik gorakoa bada.

Zk-3418

154/1997, DEKRETUA, ekainaren 24koa, Nekazaritzako Prestakuntza Zerbitzuaren Kudeaketa «Mendikoi, Sa» Herri-Sozietateari Atxikitzen Diona.

1992an, Eusko Legebiltzarrak Euskal Baserrialdeko Plangintza onetsi zuen aho batez. Plan horren helburu nagusia landa-ingurunea defendatu eta sustatzea da; eta prestakuntza da, hain zuzen ere, helburu hori lortzeko alderdi garrantzitsuenetakoa, nekazaritza eraberritzeko funtsezko zutabea baita prestakuntza.

Nekazaritza eta landa-inguruneko prestakuntza, bera planifikatu, zuzendu eta koordinatuz, Nekazaritza Sailordetzaren jardun-arloen barruan dago, eta nekazaritzako prestakuntza antolatu, kudeatu eta sustatzea Garapen eta Koordinaziorako zuzendariaren egitekoa da, berari esleitzen baitio Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena aldatzeko den azaroaren 12ko 225/1996 Dekretuaren seigarren atalak.

Gaur egun, nekazaritzako prestakuntza Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren menpeko zentro hauetan ematen da: Derioko Nekazaritza Eskola (Bizkaia), Arkauteko Nekazaritza eskola (Araba) eta Fraisoroko Nekazaritza eskola (Gipuzkoa). Hiru eskolak Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren menpekoak dira Garapen eta Koordinaziorako Zuzendaritzaren bitartez, zuzendaritza hori baita nekazaritzako prestakuntzaren antolamenduaren ardatz nagusia.

Nekazaritzako prestakuntzak erantzun egokia eman behar die Nekazaritzako Politika Komunaren aldaketa sakonaren ondorioz landa-inguruan azaldu diren erron-

el apartado 1 del Artículo 92, quedando la ayuda exenta del requisito de notificación previa a la Comisión, en virtud del apartado 1 del Artículo 93. Posteriormente se ha comprobado que la norma no cubre ciertas ayudas que claramente no amenazan falsear la competencia ni los intercambios comerciales entre Estados miembros de forma apreciable.

Por ello, el importe máximo total de ayudas de minimis se ha actualizado y fijado en 100.000 Ecus, durante un periodo de tres años a partir de la concesión de la primera ayuda de minimis (D.O.C.E. 6 de marzo de 1996).

Para garantizar el cumplimiento de los límites de ayudas, no se concederán ayudas de minimis a una misma empresa, tal que dicha ayuda haga que el importe total de ayudas de minimis que reciba la empresa durante un periodo de tres años sea superior a 100.000 Ecus.

Nº-3418

DECRETO 154/1997, de 24 de junio, por el que se adscribe la gestión del servicio de formación agraria a la Sociedad Pública «Mendikoi, S.A.»

En 1992, el Parlamento Vasco aprobó por unanimidad el Plan Estratégico Rural Vasco, cuyo objetivo principal es la defensa y promoción del medio rural, constituyendo uno de los aspectos básicos para la consecución de este objetivo la formación, pilar fundamental para modernizar el sector agrario.

La Formación Agraria y del Medio Rural entra dentro de las áreas de actuación de la Viceconsejería de Agricultura, planificando, dirigiendo y coordinando ésta, correspondiéndole la función de ordenar, gestionar y promover la formación agraria al Director de Desarrollo y Coordinación, funciones estas atribuidas en el artículo sexto del Decreto 225/1996, de 12 de noviembre por el que se modifica la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

Actualmente, los Centro dependientes del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca que imparten la formación agraria, son la Escuela Agraria de Derio (Bizkaia), la Escuela Agraria de Arkaute (Álava) y la Escuela Agraria de Fraisoro (Gipuzkoa), dependientes del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca a través de la Dirección de Desarrollo y Coordinación, siendo ésta el eje fundamental sobre el que pesa la formación agraria.

La formación agraria debe dar respuesta a los nuevos retos del medio rural derivados de la profunda reforma de la Política Agrícola Común, al cambio de las tecno-

ka berriei, nekazaritzako elikagaien sektoreko teknologietan eta kontsumo-moduetan gertatu diren aldaketei eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legearen (LOGSE) aplikazioari.

Horretarako, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak beharrezkotzat hartu du prestakuntza moldatzea eskakizun berri horien arabera eta, era berean, antolamendu malguagoaz hornitzea, euskal landa-ingurunean nekazaritzako prestakuntza sustapen enpresarialera bideratzeko modu integratuan.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak giza baliabideen prestakuntza arloan identifikatu dituen eragozpenak gainditzeko da lortu nahi den helburua. Eragozpen horiek Euskal Sektore Publikoaren Epe Ertainerako Plan Ekonomikoan (1994/1997) jasotzen dira, planak esaten duenean inertziazko jokabideak eta aldaketarekiko erresistentziak galarazi edo hutsaltzen dutela beharrezko aldaketan ezarpena, eta Administrazioaren zurruntasunak eragozten duela prestakuntza zentroen eta gizarte-ingurunearen arteko lankidetzaren modu berrien aplikazioa.

Halaber, Euskal Autonomi Elkartearen 1997 urteko aurrekontu orokorren Legearen xedapen gehigarrietariko hamabigarrenak eskuespena ematen dio Jaurlaritzaren Kontseiluari nekazaritzako prestakuntzako zerbitzuen kudeaketa esleitzeko Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikitako erakunde administraziozkoen, baldin eta zerbitzu horiek sail horren menpekoak badira.

Egoera hori planteaturik, eta Administrazioak eraginkortasunez eta hiritarren zerbitzuan jardun behar duela printzipioan oinarrituta, sail honen ustez egokiena da nekazaritzako prestakuntza arautu eta arautu gabearen zerbitzuaren kudeaketa Mendikoi, SA herri-sozietateari atxikitzea, Euskal Autonomi Elkartean lehen adierazitako helburuak lortzeko nekazaritzako prestakuntzari dagokionez.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko ekainaren 24an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala.– Mendikoi, SA herri-sozietateari atxikitzen zaio urtarrilaren 31ko 81/1995 Dekretuaren ondorioz Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren menpekoa den nekazaritzako prestakuntza zerbitzuaren kudeaketa, Euskal Autonomi Elkartearen 1997 urteko aurrekontu orokorren Legearen xedapen gehigarrietariko hamabigarrenarekin bat etorriz, eta Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak berarentzat gordetzen ditu urtarrilaren 31ko 81/1995 Dekretuaren 24. atalak esleitzen dizkion eraginkizunak.

Herri-ikastegiei buruzko arauekin bat etorriz eman go da orain atxikitzen den nekazaritzako lanbide-heziketako irakaskuntza.

logías y de las pautas de consumo en el sector agroalimentario, así como a la aplicación de la LOGSE.

A tal fin, el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca considera necesaria una adaptación de la Formación a esas nuevas exigencias y dotarla de una organización más flexible, que preste, de forma integrada, la formación agraria hacia la promoción empresarial en el Medio Rural Vasco.

De esta forma, se pretende superar las dificultades identificadas por el Gobierno Vasco en materia de formación de Recursos Humanos, plasmadas en el Plan Económico a Medio Plazo del Sector Público Vasco 1994/1997, cuando establece que la actitud inercial y resistencia al cambio dificulta o desvirtúa la introducción de los cambios necesarios, y que la rigidez de la Administración dificulta la introducción de nuevas formas de colaboración entre los centros de formación y el entorno social.

Así mismo la Disposición Adicional Duodécima de la Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1997 establece la autorización al Consejo de Gobierno para que pueda proceder a la atribución de la gestión de los servicios de formación profesional agraria dependientes del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca a las entidades de la Administración Institucional adscritas a dicho Departamento.

Planteada esta situación y basándonos en el principio de que la Administración debe de actuar conforme al principio de eficacia, eficiencia y servicio a los ciudadanos, este Departamento considera que lo más adecuado para conseguir los objetivos anteriormente expuestos respecto de la Formación Agraria en el País Vasco es la adscripción de la gestión del servicio de formación agraria, reglada y no reglada a la Sociedad Pública Mendikoi, S.A.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del 24 de junio de 1997,

DISPONGO:

Artículo 1.– Se adscribe a la Sociedad Pública Mendikoi, S.A. la gestión del servicio de formación agraria, dependiente del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca en virtud del Decreto 81/1995, de 31 de enero, de acuerdo con la Disposición Adicional Duodécima de la Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1997, reservándose el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, las funciones que le atribuye el artículo 24 del Decreto 81/1995, de 31 de enero.

Las impartición de las enseñanzas de formación profesional agraria de carácter reglado que se adscriben serán desarrolladas con arreglo a las normas que regulan los centros docentes públicos.

2. atala.– Dekretu honen arabera Mendikoi, SA herri-sozietateari egiten zaion atxikipenaren ondorioz, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzazko Errege Dekretuaren 44. atala aplikatuko zaio nekazari-tzakako prestakuntzari atxikitako lan-itunpeko langile-riari.

3. atala.– 1.– Mendikoi, SA herri sozietatea gauza izan dadin atxikitzen zaion zerbitzua kudeatzeko, Eusko Jaurlaritzak herri-sozietatearen esku jarriko du, zerbitzuaren atxikipenak dirauen bitartean, jarraian aipatuko diren lokalak, erabiliak izan daitezten:

- Derioko Nekazaritza Eskola.
- Arkauteko Nekazaritza Eskola.
- Fraisoroko Nekazaritza Eskola.

2.– Atal honen 1. idatzian aipaturako lokalak Mendikoi, SA herri-sozietatearen esku jarri baino lehen, Garapen eta Koordinaziorako Zuzendaritzak emate-akta egingo du, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eskumenak ezertan urratu gabe, eta akta horretan aipaturiko lokaletan dauden altzari eta elementu guztien inbentario zehatza jasoko da, herri-sozietateak behar bezala artatu behar baititu altzari eta elementuok, eta, halakorik galdu edo hondatuz gero, bere kontura jarri behar baitu berria.

3.– Zerbitzuaren atxikipenak eta aurreko idatzian aipaturako instalazioen erabilpenak dirauten bitartean, Mendikoi, SA herri-sozietatea behartuta dago instalazio horiek behar bezala mantentzera eta horretarako behar diren obra guztiak egitera, aldezturik obren egitasmoa Garapen eta Koordinaziorako Zuzendaritzari aurkeztu ondoren, berak onetsi dezan, hori guztia Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eskumenak ezertan urratu gabe.

4. atala.– 1.– Mendikoi, SA herri-sozietateak auke-ria izango du, dekretu honen 1. atalean bildutako zerbitzu eta eginkizunen kudeatzailea baita, zerbitzu eta eginkizun horiek burutzeko behar diren instalazioak sustatu eta eraikitzeko, edota egun dauden eta 2. atalaren 1. idatzian aipatzen diren instalazioen egokitzapena sustatu eta burutzeko.

2.– Aipaturiko herri-sozietate kudeatzaileak idatziko ditu 2. atalean adierazitako instalazioetako obretarako eta ekipamendu-hornikuntzetarako egitasmoak, beti ere arlo honetan aplikatzekoak diren arauak zorrotasunez betez. Egitasmo horiek egindakoan, Garapen eta Koordinaziorako Zuzendaritzari aurkeztuko zaizkio, berak onetsi ditzan, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eskumenak ezertan urratu gabe.

3.– Sozietateak egingo du, halaber, ekipamenduaren eta instalazioetako burutzapen-obren kontratazioa, publizitate eta lehiaren printzipioen arabera, maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen xedapen gehigarriak ezarri bezala, aplikatzeko den legeria zibil eta merkataritzako legeriaren arabera eta Garapen eta Koordinaziorako Zuzendaritzak onetsitako egitasmoaren arabera.

4.– Atal honetan adierazitako instalazioak egokitu, aldatu edo hobetzeko obrak amaitutakoan, obra horien

Artículo 2.– Como consecuencia de la adscripción que, conforme a este Decreto, se realiza a la Sociedad Pública Mendikoi, S.A., se produce respecto al personal laboral adscrito a la formación agraria, la aplicación del artículo 44 del Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

Artículo 3.– 1.– Para que la Sociedad Pública Mendikoi, S.A. pueda desarrollar la gestión del servicio que se le adscribe, el Gobierno Vasco pone a su disposición, hasta tanto dure la adscripción del servicio, para su utilización los locales que a continuación se describen:

- Escuela Agraria de Derio.
- Escuela Agraria de Arkaute.
- Escuela Agraria de Fraisoro.

2.– Antes de que se ponga a disposición de la Sociedad Pública Mendikoi, S.A., los locales mencionados en el apartado 1. de este artículo, la Dirección de Desarrollo y Coordinación, sin perjuicio de las competencias de la Dirección de Patrimonio y Contratación, levantará un acta de entrega que contenga el inventario exhaustivo de todos los bienes muebles y elementos existentes en ellos, que deberán ser conservados adecuadamente, o en caso de pérdida o deterioro, renovados por cuenta de la Sociedad Pública.

3.– La Sociedad Pública Mendikoi, S.A. está obligada, mientras dure la adscripción del servicio y la utilización de las instalaciones descritas en el apartado anterior, a mantener éstas en perfectas condiciones y a realizar las obras que para ello sean necesarias, previa presentación de éstas, para su aprobación, a la Dirección de Desarrollo y Coordinación, sin perjuicio de las competencias de la Dirección de Patrimonio y Contratación.

Artículo 4.– 1.– La Sociedad Pública Mendikoi, S.A. como gestora de los servicios y funciones contenidos en el artículo 1 del presente Decreto podrá promover y construir las instalaciones necesarias para el desarrollo de los mismos, así como promover y acometer la adecuación de las existentes y descritas en el artículo 2 apartado 1.

2.– Los proyectos de obras, y los de suministro de equipamiento de las instalaciones señaladas en el artículo 2 serán redactados por la mencionada Sociedad Pública gestora, con estricto cumplimiento de la normativa aplicable en la materia, y serán presentadas, para su aprobación, a la Dirección de Desarrollo y Coordinación, sin perjuicio de las competencias de la Dirección de Patrimonio y Contratación.

3.– La contratación de equipamiento y de las obras de ejecución en las instalaciones se llevará a cabo por la Sociedad ajustándose a los principios de publicidad y concurrencia, conforme lo establece la Disposición Adicional de la Ley 13/1995, de 18 de mayo, a la legislación civil y mercantil que le sea de aplicación y al proyecto aprobado por la Dirección de Desarrollo y Coordinación.

4.– Las obras para la adecuación, modificación o mejora de las instalaciones señaladas en el presente artículo

amaieraren berri emango dio Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari, Euskal Autonomi Elkartearen Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra eguneratzeko.

Eraikin berriak eginez gero, behin obrak amaitu ondoren, beraien berri emango dio Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari, Jabetza Erregistroan inskribatzeko.

5. atala.– 1.– Mendikoi, SA herri-sozietateak kiebra jo eta/edo ordainketak etenez gero, dekretu honen arabera atxikitako nekazaritzako prestakuntza zerbitzu osoa berehala itzuliko zaio Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailari.

2.– Mendikoi, SAK herri-sozietate izateari utziko balio, dekretu honen arabera atxikitako nekazaritzako prestakuntza zerbitzu osoa berehala itzuliko litzaioke Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailari.

6. atala.– Nekazaritzako prestakuntzako zerbitzuaren kudeaketa Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailari itzuliz gero, zerbitzu hori Mendikoi, SAK esleitzearen ondorioz herri-sozietate horri atxikitzen zaizkion Administrazio langileak, baldin eta zerbitzuaren itzulketa gauzatzen denean Mendikoi, SAK jarraitzen badute lanean, Euskal Autonomi Elkarte Administrazio Orokorra itzuliko dira indarreko lan-arauek ezartzen dituzten baldintzetan.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.– Ahalmena ematen zaio Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari dekretu hau bete eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena.– Dekretu hau 1997ko uztailaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko ekainaren 24an.

Lehendakariordea,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

culo, serán comunicadas, a su finalización, por el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca a la Dirección de Patrimonio y Contratación para la actualización del Inventario General de Bienes y Derechos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En los supuestos de realización de obras de construcción que supongan nuevas edificaciones, éstas serán comunicadas, a su finalización, por el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca a la Dirección de Patrimonio y Contratación para su inscripción en el Registro de la Propiedad correspondiente.

Artículo 5.– 1.– En el supuesto de que la Sociedad Pública Mendikoi, S.A. entre en situación de quiebra y/o suspensión de pagos, la totalidad del servicio de formación agraria adscrito conforme a lo dispuesto en el presente Decreto, revertirá automáticamente al Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

2.– En el supuesto de que Mendikoi, S. A. dejara de ser Sociedad Pública, la totalidad del servicio de formación agraria adscrito conforme a lo dispuesto en el presente Decreto, revertirá automáticamente al Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

Artículo 6.– En el supuesto de que la gestión del servicio de formación agraria revierta al Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, el personal de la Administración que se incorporó en su día, como consecuencia de la adscripción de dicho servicio a Mendikoi, S.A. y que siga prestando sus servicios en ésta, se reincorporará a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las condiciones que establezca la normativa laboral en vigor.

DISPOSICIÓN FINAL

Primera.– Se faculta al Consejero de Industria, Agricultura y Pesca para dictar las disposiciones necesarias para la ejecución y desarrollo del presente Decreto.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor el día 1 de julio de 1997.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de junio de 1997.

El Vicepresidente,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.